

infraganti

ANE LABAKA

Bizitza erdia darama bertsotan, dituen 24 urteen erdiak. Eskolartekoetatik hasi zen nabarmentzen bertsolari lasartearra, umetatik bazekielako nola esan: seguru, ozen, kokotxa tente. Bidean ikasi du zer esan nahi duen, garbi baitauka feminismora lotu zelako jarraitzen duela bertsolari izaten. Beretzat bertsolaritza eragiteko tresna bat da.

Hamabi urte zituela hurbildu zen bertso eskolara. Orain adin bikoitza dauka. Aita oso bertsozalea du eta igoal horregatik ez zen lehenago gerturatu, badelako bizitzan sasoi bat gurasoei kontra pixka bat egin behar zaiena. «Bi urte gazteagoa den ahizpa daukat, Maddi. Bera hasi zen bertso eskolan eta berak kontatzen zuenak tentatuta eman nuen pausoa. Orain nik bertsotan segitzen dut eta Maddik ez».

Lasartearra den arren, Añorgako Amasorrain ikastolan ibilia da eta bertsotan Asteasuko bertso eskolan hasi zen, Amaia Agirreren eskutik. «Aitak Amaia ezagutzen zuen eta horregatik hasi nintzen Asteasun. Bertso eskolan hasi orduko sekulako talde giroa igarri nuen eta horrek engantxatu ninduen». Eta Asteasun harrapatu zuen talde giro horretan segitzen du, bertsolaritzak baduelako soka hori osatzeko gaitasuna; bertso eskolaren bueltan, eskolartekoaren inguruan, unibertsitatean, bertso saioetan, sare sozialetan... jositako amaraunean lotzen dira bertsolari gazteak, txoko desberdinetakoak laguntasun baten bueltan bilduaz.

Ane Labaka azkar hasi zen oholtoa gaineko jardunean nabarmentzen; eskolartekoetan eta gazte sariaketetan sari asko eta asko lortua baita, bai idatzian eta bai bat-batekoan. «Egia esan, zortea beti alde izan dudala sentitzen dut», esan du. Ez omen da bere lehen oholtzarekin akordatzan, asko sufritu ez zuen seinale. «Ez daukat gogoan sekula oholtzan asko sufritu dudanik». Egia da patxada eta se-

gurtasuna transmititzen dituela kantuan. «Askotan esan didate. Egia da, hala ere, beti ez naizela kanpotik ematen zuen bezain seguru eta lasai aritu».

Kantatu ozen, burua altxatu, hankak zabaldu... Emakume askok jaso dituzte era horretako lezioak bertso eskoletan. Ane Labakak horrela kantatzen du. «Guri horrela irakatsi digute, baina nire ikasleekin saiatzen naiz hori zaintzen eta horrelako aholkuak ez ematen. Saiatzen naiz erreferente desberdinak erakusten eta bakoitza den bezala agertzeko esaten diet. Orain badaude erreferente desberdinak. Maider Arregi, esaterako, sekulako bertsolaria iruditzen zait eta ez du inondik inora ozen kantatzen, baina lortzen du bere ahotsarekin mundu guztia harrapatzea».

BERTSOLARITZA ETA FEMINISMOA

Askotan izaten dira krisiak bertsolariaren bidean. Lasartearrak ere izan du berea propioa. «Gasteiza Euskal Filologia ikastera joan nintzenean han inguruan bildu ginen gure belaunaldiko bertsolari batzuk eta bertso eskola egiten hasi ginen. Adin buelta hartan oso gaizki sentitzen hasi nintzen bertsoarekin. Uste dut ordura arte nire burua lasai samar aritzen zela potolokeriak kantatuta ere, baina une hartan galdera potoloak sortzen hasi zitzaizkidan; zer egin nahi nuen bertsotan, zer kantatu nahi nuen, nola...». Une batean bertsoak uztekoan ere egon omen zen, bertsoarekin haserre.

«Eskolartekoan nabarmentzen hasi eta konturatu gabe egin nuen bidea. Gidabaimena izan aurretik gurasoek eramaten ninduten plazaz plaza. Zurrumbilo batean sartu nintzen,

inertziaz, bide horri buruz hausnartu gabe», zehaztu du.

Krisi horretan bete-betea zegoela, Askizun Emakume Bertsolarien topaketa izan zen, eta bertan egon zen. Denbora paretsuan, feminismoaren baitan bidea urratzen hasi zen. «Zalantzan jartzen dut feminismoaren barruan bide hori urratu izan ez banu, beste emakume batzuekin nire bizipenak partekatu ez banitu, hau eta bestea irakurri

«Eskolartekoan nabarmentzen hasi eta konturatu gabe egin nuen bidea. Zurrumbilo batean sartu nintzen, inertziaz, bide horri buruz hausnartu gabe»

«Zalantzan jartzen dut feminismoaren barruan bide bat urratu izan ez banu, hau eta bestea irakurri ez banu, gaur egun plazan bertsotan egongo nintzatekeen. Segur aski, ez»


ez banu, gaur egun plazan bertsotan egongo nintzatekeenik. Segur aski, ez».

Feminismorik gabe, ez litzateke bertsolari. «Niretzat bertsolaritza eragiteko tresna bat da. Nik sentitzen dut eragiten ari naizela, kantatzen ari naizenean eta kantatzen ari ez naizenean. Badakit zer kantatu nahi dudana eta zer ez. Gero, bat-batean ari zarela, inoiz ez duzu egiten nahiko zenukeena nahiko zenukeen perfektzio mailarekin. Baina hori bidearen parte da».

Ane Labakaren belaunaldia parekidetasunaren ameskerian hazitakoa dela esaten da askotan. Labakak, bere aldetik, beti sentitu du parekidetasun eza. «Bertso eskolan bertan konturatzan nintzen desberdintasunez.

Mutilek erraz asko kantatzen zuten jendaurrean, baita bertsoaren erdian gelditu eta barrez hasi ere. Nik ez nion nire buruari horrelakorik baimentzen. Nik buruan idazten nuen bertsoa, idatzi bezala. Eta bertso hori perfektua izan arte, ez nuen kantatzen. Niri gehien kostatu zaidana hori izan da, gainera; bertso perfektu horretatik ateratzea, inperfekzioa bat-batekoaren parte dela onartzea».

Ane Labaka Mayo z bertso irakasle lanetan ari da gaur egun, bai hezkuntza arautuan bai hortik kanpoko bertso eskoletan. Gainera, Antropologian masterra egiten ari da eta sorkuntza arloko beste saltsa askotan ere badabil. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS





bai hortik kanpo. Antropologia-ko masterra ere egiten ari da. «Hezkuntza arautuan Donostian, Erreterian eta Hernanin ari naiz. Eta Lasarteko, Urnieta-ko eta Añorgako bertso eskole-
tan ere ari naiz».

Oso gustura dago haur eta gaztetxoekin lanean, nahiz eta betaurreko moreetatik begiratu-
ta mina ematen duten egoerak ikusten segitzen duen. «Neskek bere buruarekin oso exigenteak izaten segitzen dute. Irakasleak galdera bat egiten duenean, nor-
malean mutil gehiagok altxa-
tzen dute besoa. Neska batek be-
soa altxatzen duenerako, seguru
daki bere erantzuna zuzena de-
la. Neska batek ez du besoa al-
txatzen edozer gauza esateko.
Eta hori klase bakoitzean ikus-
ten dut nik. Bertsozale Elkartek
sekulako lana egiten ari gara

kulako eragina zuela, umoreak
asko eraikitzen duela. Eta gai
horri heltzea pentsatu nuen». Masterrera-
ko egin behar duen ikerketa lana da, hain juxtu, sa-
ritu dutena.

Zenbat eta nola eraikitzen du
umoreak? «Bai plazan eta bai
plazatik kanpo erabiltzen dugun
umore hegemonikoa sistema
patriarkalean oinarrituta dago
erabat. Aldi berean, umorea era-
bil daiteke genero sistemak
markatzen duen horri erresis-
tentzia egiteko, hori transgredi-
tzeko. Bi norabide horiek ditu
nire lanak: batetik, genero siste-
mak sortutako umorea ikertu,
eta, bestetik, horri guztiari aurre
egiteko, horri barre egiteko, sor-
tzen ari diren umore berriak
identifikatu eta ikertu».

Bertsolariak badaki nola piztu
publikoa, zein klabe erabili ba-

egitera. Eta bestelako umorea
egiten den saioetan ere egingo
ditut grabazioak, 'Ez da kasuali-
tatea' bezalako saioetan. Konpa-
raketak egin nahi ditut».

Hausnarketa kontzientean ha-
si aurretik, konturatuta zegoen
umore klase batek ez ziola gra-
ziarik egiten. «Ni baino heldua-
goa den gizonezko batekin kan-
tatzen badut, badakit ia beti
zer-nolako umorea sortuko den:
ligoteoa, kalabazak... Badakit zer
ez dudana egin nahi, nahiz eta
batzuetan bat-batekoak harra-
patu egiten gaituen. Emakume
bertsolari asko gara betiko umore
hegemoniko eta matxista hori
egin nahi ez dugunak, baita
gizonezko batzuk ere. Badakigu
umorearekin ere eraiki eta dese-
raiki egin daitekeela. Orain, pla-
zak falta zaizkigu».

Emakumeak egon badaude
plazan, baina oraindik ez betiko
umorea, betiko txiste erraza,
hankaz gora jartzeko kopuruan.
«Sei bertsolariko jaialdietan bi
izatera iritsi gaitzake, baina, lau
bertsolarikoetan, emakume ba-
karra izan ohi da. Guretzat oso
garrantzitsua da emakume arte-
an kantatzea, gure arteko bertso
saioak izatea, baina horiek data
seinalatuen bueltan baino ez di-
ra izaten, Martxoaren 8an kasu.
Guk badakigu badela umore ko-
de bat guri ez zaiguna gusta-
tzen, ez diguna funtzionatzen.
Beste umore kodea eraikitze-
ko dago, baina ez dugu eraikitze-
ko aukerarik, ez ditugulako horre-
tarako behar adina plaza». Pla-
zarik ezean, plazatik kanpo la-
nean ari dira. «Hilabeteen behin
elkartzen gara emakume talde
bat kantatzeko. Hausnarketa ga-
rrantzitsua da, baina nik elka-
rrekin kantatzeari ere sekulako
garrantzia ematen diot, horrela-
koetan eraikitzen baititugu ko-
de berriak; kantatu, hanka sartu,
gozatu, estutu...».

Plazak behar dituzte gusta-
tzen ez zaien umore kodea dese-
raiki eta berria eraikitze-ko. Eta
ez da emakumeen umore kode
berria, bertsolaritzak aurrera
egiteko behar duen umore kode
berria baizik. Baina emakume
gabe ezin da eraiki. •

**«Erabiltzen dugun umore hegemonikoa
sistema patriarkalean oinarrituta dago. Aldi
berean, umorea erabil daiteke genero sistemak
markatzen duen horri erresistentzia egiteko»**

**«Makila, txistorra... aipatzen bada denek dakite
zakilaz ari dela bertsolaria, denek barre egiten
dute eta txalo jotzen dute. Baina, zer gertatzen
da bertsolariak alua aipatzen badu?»**

norabide horretan, kontziente
garelako oraindik asko dagoela
egiteko. Baina zaila da».

Feminismoa eta bertsolaritza
elkarren artean korapilatuta
ulertu eta bizi ditu Ane Labakak.
Bide horretan, Mintzola Ahozko
Lantegiak eta Mikel Laboa Kate-
drak eskainitako hiru proiektu
sarietako bat lortu du. «Bertsola-
ritzan garatutako umorea(k), ge-
nero ikuspegitik» proiektua aur-
keztu eta 2.000 euroko saria
jasoko du bere lana osatzeko.

«Antropologiako masterra
ikerketara bideratutakoa da.
Garbi neukan, hasieratik, ber-
tsolaritza eta generoa landuko
zituen lan bat egin nahi nuela,
baina zerbait berria ekarri nahi
nuen. Aurretik egindako lane-
tan ikusi nuen behin eta berriz
errepikatzen zela umoreak se-

rra pizteko. «Makila, txistorra...
aipatzen bada denek dakite za-
kilaz ari dela bertsolaria, denek
barre egiten dute eta txalo jo-
tzen dute. Baina, zer gertatzen
da alua aipatzen badu? Uxue Al-
berdik egin zuen lehen aldiz
duela gutxi eta berak kontatzen
du jendea lekuz kanpo geratu
zela, ez zekiela oso ondo zer
egin behar zuen; txalo jo, barre
egin, ukabila altxatu...».

Dagoeneko hasi da ikerketare-
kin, umorearen eta generoaren
bueltan ari diren zenbait ema-
kume elkarriketatuz; Aitziber
Garmendia, Beatriz Egizabal,
Idoia Torregarai, Irantzu Varela...
Aurreraxeago emakume bertso-
lariarekin elkartzeko da. «Umore
hegemonikoa topatuko dudala
iruditzen zaidan bertso saioeta-
ra ere joango naiz, grabazioak

amagoia.mujika@gaur8.info